

10/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025EKO URRIAREN 16AN EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

EZ BERTARATUTAKOAK:

Anoetako Udaletxean, 2025eko urriaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, udaleko osoko bilkura berezia antolatu da, Egoitz Luisa Urkola alkatearen lehendakaritzapean, eta Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa aritu da idazkari kontu-hartzaile lanetan.

Alkateak eskerrak eman dizkio Patxi Lapatza-Gortazar Bengoari, lanpostuetako metaketa bidez idazkari kontu-hartzaile gisa Anoetako Udalarari laguntzeagatik.

Alkateak bertaratukoei eskerrak eman ondoren, bilerari hasiera emanez lehendakariak saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzatuko kideei, eta gai horiei buruz honako erabaki hauek hartu dituzte:

I EBAZPENAK

1. 2025EKO IRAILAREN 30EKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udaltzatzen honako hau erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. 2025eko irailaren 30eko bilkurari dagokion akta onartzea.

2. TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA EZARTZEKO FUNTSEZKOAK DIREN ELEMENTUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA ONARTZEA.

Alkatetzak, egindako probidentzian azaldutako moduan, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren koefizientea eguneratzea % 3 igoz, Kontsumoko Prezioen gaineko Indizea izaten ari den igoera kontuan izanda (aurrerantzean, KPI).

EAJ/PNV alderdiko buru Nuria Carbonell Mirandak adierazi du probidentzia sinatuta dagoela baina beste txostenak ez daudela idazkariak sinatuta. Eta gauza berbera gertatzen dela Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren dokumentazioaren kasuan.

Hori horrela dela egiaztatu ondoren, alkateak adierazi du akats baten ondorio dela, eta idazkariak txosten horiek sinatuta dituela. Alkateak idazkariari galdetu dio ea zer egin daitekeen kasu horretan eta aukera bat sinatuta dauden txostenak inprimatu eta Udalbatzan aurkeztea dela proposatu du.

Nuria Carbonell Mirandak baiezkota adierazi ondoren, idazkariak sinatutako txostenak aurkeztu ditu alkateak.

Ondoren, bozketari ekin zaio eta Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuota ezartzeko funtsezkoak diren elementuak arautzeko Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den testu honekin:

TARIFA	KOEFIZIENTEA	ZENBATEKOA
A) Turismoak		
9 zaldi-potentzia fiskaletik beherakoak	2,20562224	40,56 €
9tik 11,99 zaldi-potentzia fiskaletara bitartekoak	2,18890841	80,51 €
12tik 13,99 zaldi-potentzia fiskaletara bitartekoak	2,1891463	134,19 €
14tik 15,99 zaldi-potentzia fiskaletara bitartekoak	2,24535833	192,7 €
16tik 19,99 zaldi-potentzia fiskalera bitartekoak	2,30157036	253,95 €
20 zaldi-potentzia fiskaletik gorakoak	2,3576747	317,96 €
B) Autobusak		

21 plaza baino gutxiagokoak	2,18925398	182,36 €
21etik 50 plazatarako bitartekoak	2,18925398	259,73 €
50 plaza baino gehiagokoak	2,18925398	324,67 €
C) Kamioiak		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,18936167	92,57 €
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,19323836	182,7 €
2.999 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,18925398	259,73 €
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,18925398	324,67 €
D) Traktoreak		
16 zaldi-potentzia fiskal baino gutxiagokoak	2,07715298	36,7 €
16tik 25 zaldi-potentzia fiskalera bitartekoak	2,07704529	57,68 €
25 zaldi-potentzia fiskal baino gehiagokoak	2,07682992	173 €
E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastaka eramandako atoi eta erdi-atoiak		
1.000 kg baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	2,13282658	37,69 €
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,13325732	59,24 €
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,13314964	177,69 €
F) Gainerako ibilgailuak		
Ziklomotoreak	2,19086927	9,88 €
125 cc-ra bitarteko motozikletak	2,19086927	9,88 €
125cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	2,18882324	16,9 €
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	2,18946935	33,83 €
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	2,24546601	69,38 €
1.000 cc-tik gorako motozikletak	2,24525064	138,73 €

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da udal honetako egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

3. ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA ONARTZEA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau

onartu erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den honako testu honekin:

«...

ERANSKINA

1. Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa hau da:

- a) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: % 0,600.*
- b) Gainerako ondasun hiritarrentzat: % 0,197.*

2. Landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikatu behar zaion karga tasa: % 1,027.

1. Bizitegi erabilera duten ondasun higiezinaren kasuan, horiek ez badira ohiko bizilekua ez subjektu pasiboarentzat ez hura errentamendu edo lagapen bidez jaso duen hirugarrenarentzat erreklama aplikatuko zaie: % 150.

...».

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da udal honetako egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

4. UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ORDENANTZAREN INGURUKO ALEGAZIOEN INGURUKO TXOSTENA ONESPENA ETA ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Espedientean dagoen dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak honako hau erabaki du aho batez:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Udal etxebizitza tasatuen behin behineko ordenantzaren inguruan aurkeztutako alegazioen inguruan udalaren aholkulari juridikoak aurkeztutako txostena onrtzea.

BIGARRENA. Udal etxebizitza tasatuen behin betiko ordenantza onartzea honako textuarekin:

«...

ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean sartzearekin batera, prezio tasatuko eta udal erregimeneko etxebizitzaren kategoria sortu zen, kategoria berri gisa, babes ofizialeko etxebizitzaren barruan. Orain arte, Anoetako udalerrriak ez du gai horri buruzko arauketa propiorik izan, indarrean dagoen araudian aurreikusten den bezala.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean sartzeak, beste gogoeta askoren artean, dei egiten die erakunde publiko guztiei, herritar guztiek etxebizitza duina eta egokia izateko duten eskubide subjektiboa betetzen dela bermatzeko. Hain zuzen ere, legearen 21. artikulua ezartzen du udal etxebizitza tasatuen sustapenak babes sozialeko etxebizitzaren ezaugarri eta araubide juridiko berberak izango dituztela, lege horretan, haren erregelamendu garapenean eta udalek horretarako argitaratzen dituzten toki ordenantzetan ezarritako berezitasunekin.

Gaur egungo hirigintza aurreikuspenek kalifikazio hori duten etxebizitzak garatzea aurreikusten dute, eta horrek are gehiago justifikatzen du, ahal izanez gero, araubide juridikoa arautuko duen udal ordenantza espezifiko bat onartzea.

Horrekin batera, araudia prozeduretara egokitu behar da behin behineko eta behin betiko kalifikazioari dagokionez, bai eta obrako eta lehen erabilerako edo okupazioko udal lizentziekin duten erlazioari dagokionez ere (Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 28. artikulua eta hurrengoak).

Udal ordenantza honek Anoetako udalerrirako egiten duen zehaztapenak Anoetako Udalari etxebizitza politika propioak ezartzeko aukera emango dio, horrela herritarrei etxebizitza duin eta kalitatezkoa eskuratzeko aukera erraztuz.

I. KAPITULUA

UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ARAUBIDEA

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

Udal-ordenantza honen xedea da Anoetako udalerriko Udal Etxebizitza Tasatuen (UET) babes publikoko araubidea ezartzea.

1. Anoetako udalerriko Udal Etxebizitza Tasatuaren (UET) babes publikoko araubidea Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean figura horretarako ezarritakoa garatuz ezartzen da.

2. Udal etxebizitza tasatuen sustapenak indarreko legerian ezarritako gizarte babesezko etxebizitzaren ezaugarri eta araubide juridiko berberak izango dituzte, ordenantza honetan eta berau garatzeko ematen diren xedapen eta egintzetan jasotzen diren berezitasunak gehituta.

3. Horretarako, Anoetako Udal Etxebizitza Tasatuek etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra izango dute, eta, ondorioz, eskualdaketa gehieneko prezio bati lotuta egongo dira, baita lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eta nahitaezko desjabetzeko eskubideei ere, haien helburua betetzen ez bada, eta babes sozialeko etxebizitzari aplikatu beharreko legerian ezarritako gainerako zehaztapenak bete beharko dituzte.

4. Etxebizitza udal-etxebizitza tasatuaren modalitatekoa dela jasoko da salerosketa eta errentamendu-kontratu pribatuetan, eskritura publikoetan eta Jabetza Erregistroko inskripzioan. Udal etxebizitza tasatuak ohiko bizileku iraunkor gisa erabiliko dira. Inola ere ez da onartuko destinoa bigarren bizileku izatea. Esleitu edo eskualdatu eta gehienez ere sei hilabeteko epean okupatu beharko dira. Egoitza iraunkortzat hartuko da urte natural osoan benetako bizilekua dena, udal organo eskudunak horretarako berariazko baimena eman ezean.

2. artikulua. Udal-etxebizitza tasatuaren kontzeptua.

1. Anoetako udalerrian “Udal Etxebizitza Tasatuak (UET)” izango dira salmenta edo alokairu prezioa mugatua dutelako eta ordenantza honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituztelako Udalak halakotzat kalifikatzen dituen etxebizitzak. “Udal Etxebizitza Tasatu (UET)” izaera etxebizitza bakoitzari atxikitako garaje eta trastelekuetara hedatzen da.

2. Babes araubide honetara bilduko dira:

Izaera bereko elementuz osatutako bizitegirako eraikuntza multzo baten parte diren etxebizitzak, honako kasu hauetako edozeinetan:

1. *Udal-etxebizitza tasatuen legezko estandarrak betetzeari dagozkionak, edo beste administrazio batzuekin egindako hitzarmenen ondoriozkoak.*
2. *Hirigintza plangintzak erabilera horretarako berariaz kalifikatutako lurzoruetan sustatzen badira.*
3. *Bizitegi lurzoru libreetan sustatzea, etxebizitzaren sustatzailearen eta Udalaren arteko akordioa edo hitzarmena egonda.*
4. *Udal titulartasuneko lurzoruetan sustatzen badira eta udalak edo, hala badagokio, horren kudeaketaz arduratzen den udal sozietateak hala ezartzen badu.*

II. KAPITULUA

UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN EZAUGARRIAK

3. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren betekizun orokorrak.

1. *Anoetako Udal Etxebizitza Tasatuek ezin izango dute 90 m²(t) erabilgarri baino gehiagoko azalerarik izan, familia ugarienezko edo kideetako batek mugikortasun urri iraunkorra duten familiei zuzendutakoak direnean izan ezik; horiek ezin izango dute 120 m²(t) erabilgarri baino gehiago izan, eta sustapen bakoitzean soilik bideratu ahal izango dira, guztizko kopuruaren % 5era arte gehienez ere.*

Familia ugarienezko eta desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza kopurua udal etxebizitza tasatuen erregimenaren kalifikazio-akordioan finkatuko da.

2. *Oro har, udal-etxebizitza tasatu guztiek aparkaleku bat eta horietako bakoitzari lotutako trasteleku bat izango dute, baina, salbuespen gisa, trastelekuen kopurua etxebizitzena baino txikiagoa izatea baimenduko da, eta udal zerbitzu teknikoek horren berri emango dute. UETari lotutako aparkalekuek eta trastelekuek ezin izango dute 30 m²(t) eta 10 m²(t) erabilgarri baino azalera handiagoa izan, eta Jabetza Erregistroan inskribatu beharko dira. Hala ere, aparkalekuaren eta/edo trastelekuaren antolamenduak eta/edo haren neurriek ezinezkoa egiten badute aipatutako gehieneko azalera betetzea, udal administrazioak salbuetsi edo aldatu ahal izango du baldintza hori.*

3. *UETek, beren garaje eta trastelekuekin batera, bizilekua eraikitzeke udal ordenantzek ezartzen dituzten baldintza teknikoak eta diseinukoak bete beharko dituzte, eta, nolabait ere, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitzari buruzko gainerako araudi teknikoak ezarritakoak.*

4. artikulua. Gehieneko prezioak udal-etxebizitza tasatuetan.

1. Udal etxebizitza tasatuen berariazko gehieneko salmenta-prezioa sustapenaren oinarri espezifikotan edo behin behineko kalifikazio akordioan ezarriko da. Gehieneko prezioa ez da inoiz izango behin behineko udal kalifikazioa lortzeko unean babes sozialeko etxebizitzetarako edo araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako aurreikusitako gehieneko prezioa halako 1,7 baino handiagoa. Eranskinen gehieneko salmenta prezioa kalkulatzeko, Udal Etxebizitza Tasatuen prezioa 0,28 indizearekin biderkatuko da.

2. Hasierako eskurapenetik urtebete igaro baino lehen egiten diren udal etxebizitza tasatuen bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan, prezioa edo errenta hasierakoa izango da. Aipatutako bigarren eta ondorengo eskualdatzeak urtebeteko epea igaro ondoren egiten badira, prezioa edo errenta honela kalkulatu da: babes sozialeko etxebizitzetarako edo araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako bigarren eta ondorengo eskualdatzearen unean indarrean dagoen gehieneko prezioari hasieran aplikatutako indizea aplikatuta.

3. Etxebizitzak azalera jabetzaren araubidean lagatzen direnean, bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan gehieneko prezioa hasierako eskuraketarako ordaindutakoa izango da, eta honako murrizketa hauekin:

a) Urtean 100eko 0,5 lehenengo 30 urteetan.

b) Urtean 100eko 1 hurrengo 20 urteetan.

c) Urtean 100eko 2,6 azken urteetan.

4. Udal etxebizitza tasatuen gehieneko errentamendu prezioa sustapenaren oinarri espezifikotan edo behin-behineko kalifikazio-akordioan ezarriko da. Gehieneko prezioa zehazteko, indize bat aplikatuko zaio indarrean dagoen Aginduan babes sozialeko etxebizitza tipologiaren baterako aurreikusitako prezioari. Errentamenduaren prezioa etxebizitza horien eta haien eranskinen gehieneko salmenta-prezioaren ehuneko bat izango da, eta bizikidetzaren unitate errentariaren urteko diru-sarreraren arabera ezarriko da, autonomia erkidegoko araudiak ezarritakoaren arabera zenbatuta.

5. Higiezinan egin ahal izan diren hobekuntzek eta mantentze lanek, hala denean, kasuan kasuko lizentzia lortzea eskatzen dutenak, besterentze prezioa handituko dute, betiere udal administrazioak ondorio horietarako aldez aurretik onetsi baditu, egokiak direlako, eta udalak horien balorazioa eta balio galera finkatuko ditu.

5. artikulua. Onuradunen gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak.

1. Udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko eta gehieneko diru sarrera haztatuak sustapen bakoitzaren oinarri espezifikoetan edo behin behineko kalifikazio ebazpenean ezarriko dira, eta gizarte babeseko etxebizitzak edo erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean dauden gehieneko diru sarrerei buruzko indize baten arabera kalkulatuco dira.

2. Hala ere, eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta udalak xedapen horretan ezarritakoez bestelako parametroak ezartzeko duen askatasuna kontuan hartuta, ez baita kontuan hartzen, 2/2006 Legearen 82. artikuluaaren arabera, Anoeta udalerriko udal-etxebizitza tasatuek, lege-testu bereko 80. artikuluan ezarritako estandarrak betetzeko, eta onuradunen gehieneko diru-sarrera haztatuak, babes ofizialeko etxebizitzaren arloan EAEko araudian xedatutakoaren arabera kalkulatuta, ezingo dute 1,5 indizea gainditu, babes sozialeko etxebizitzak edo erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean dauden gehieneko diru-sarrerei dagokienez.

3. Artikulu honetan aurreikusitako diru-sarrerak amaitutako azken ekitaldi fiskalari buruzkoak izango dira.

III. KAPITULUA

UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN SUSTAPENA

6. artikulua. Udal-etxebizitza tasatua sustatzeko eta lagatzeko moduak.

Anoeta udal etxebizitza tasatuak honako hauek sustatu ahal izango dituzte:

- a) Udalak edo Anoetako udal administrazioaren mendeko beste entitate edo erakunde publiko batzuek, hala aginduta badute.
- b) Beste administrazio publiko batzuk eta/edo haien erakunde instrumentalak.
- c) Edozein izaeratako enpresak, publikoak zein pribatuak, baldin eta udalak lurrak edo eraikigarritasuna eskualdatzen badizkie, osorik edo zati batean, jabetzan, azalera eskubidean edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein modutan.
- d) Enpresak, kooperatibak edo beste erakunde pribatu batzuk eta pertsona fisikoak beren titularitasuneko lursail edo higiezinetan.

UETak errentamenduan, jabetza osoan, lurrazal jabetzan edo etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea asetzeko egokia den beste edozein legezko modalitatetan esleitu ahal izango dira.

Udalak erabilgarri dituen etxebizitza baliabideak, lehentasunez, egoera txarrean dauden kolektiboentzako alokairu erregimeneko etxebizitzak sustatzera bideratuko ditu.

7. artikulua. Sustapen motak.

1. Etxebizitzen sustapena titulartasun publikokoa edo pribatukoa izan daiteke.

a) Titulartasun publikoko sustapena izango da administrazio publiko batek edo sektore publikoko erakundeek hartutakoa.

b) Titulartasun pribatuko sustapena izango da pertsona fisiko edo juridiko pribatuei zor zaiena, sektore publikoko erakundeen eta sustatzaile pribatuen arteko lankidetzak-hitzarmenen bidez egindako sustapenak barne.

2. Sustapenari buruzko oinarriek, baldintza agiriekin, hitzarmenek edo agiriekin, besteak beste, eta gutxienez, zehaztapen hauek jaso beharko dituzte:

a) Sustapenaren prezioa adieraztea eta esleipen-sistema aipatzea.

b) Alokairuagatikoko prezio eta errenten zenbatekoak eta esleipendunek bete beharreko baldintzak.

c) Eraikuntza obrak eta, hala badagokio, urbanizazio obrak egiteko gehieneko epeak.

IV. KAPITULUA

UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN KALIFIKAZIOA

8. artikulua. Udal-etxebizitza tasatuen kalifikazioa.

1. Kalifikazioa administrazio-prozedura bat da, eta, haren bidez, udal-etxebizitza tasatuetarako eskatutako ezaugarriak eta baldintzak betetzen direla eta legezkoak direla egiaztatzen da, eta, hala badagokio, deklaratu egiten da, ordenantza honen eta aplikatu beharreko araudiaren arabera dagozkion ondorioekin.

2. Hirigintza-plangintzak erabilera horretarako berariaz kalifikatutako lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzak behin-behineko kalifikazioa eraikuntza-lizentziarekin batera egin beharko da, eta lizentzia hori ez da emango eskatzen ez bada edo kalifikazioa bidezkoa ez bada.

3. Behin-behineko kalifikazioaren agirian finkatuko da etxebizitza bakoitzaren gehieneko salmenta-prezioa, garajearena eta atxikitako trastelekuarena barne.

4. Lehen erabilerako hirigintza-lizentzia lortzeko, beharrezkoa izango da, aurreko kasuetan, sustatzaileak eskatuta, UET behin betiko kalifikazioa lortzea, eta etxebizitza behin-behineko kalifikazioaren zehaztapenen arabera egin dela egiaztatu beharko da.

5. Hirigintza-plangintzak babes ofizialeko etxebizitzetarako berariaz kalifikatu gabeko lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzak UET gisa kalifikatu ahal izango dira behin betiko edozein unetan, eta, kalifikazio hori lortu ondoren, horien araubide juridikoa aplikatuko zaie.

9. artikulua. Behin-behineko eta behin betiko kalifikazioaren eskaera eta gutxieneko edukia.

Kalifikazio-eskaerarekin batera, gutxienez, honako informazio edo dokumentazio hau aurkeztu beharko da, kalifikazioen funtsezko edukia izango dena:

- a) Sustatzailearen identifikazioa (izena edo sozietatearen izena, identifikazio fiskala eta helbidea).
- b) Kalifikatu eta eraiki edo gaitu beharreko etxebizitzaren zerrenda, etxebizitza eta garaje bakoitzaren azalera erabilgarria adierazita eta trastelekuak, elementuen arteko lotura zehaztuz.
- c) Etxebizitzak eskuratzeko araubidea eta hasierako erabilera berariaz zehaztea, esleipendunen ohiko bizileku iraunkorra eta xedea zein den adieraziz eta onartuz.
- d) Elementu bakoitzaren salmenta-prezioa eta/edo errenta, araudian ezarritako gehieneko salmenta-eta/edo errenta-prezioa gainditu gabe.
- e) Babes araubidearen kalifikazioa iraunkorra dela dioen idatzizko konpromisoa. Kalifikazio hori, beraz, beti egongo da gehieneko eskualdatze prezioaren eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen mende, lehenik eta behin, Udalaren alde, eta, subsidiarioki, Eusko Jaurlaritzaren alde.

10. artikulua. Udal-etxebizitza tasatuaren kalifikazioaren ondorioak.

Legearen arabera, horrela kalifikatutako UETek, beren garajeekin eta atxikitako trastelekuekin, etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra izango dute. Ondorioz, ordenantza honetan ezarritako gehieneko eskualdatze prezioari lotuta egongo dira modu iraunkorrean, baita lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiltzeari ere, lehenik eta behin udalaren alde, eta, nolanahi ere, subsidiarioki, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren alde.

Idatziz eta erregistroan jasota geratuko da higiezin horiek “udal etxebizitza tasatuak” direla, kalifikazio mugagabe eta iraunkorrarekin, eta etxebizitza horiek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideei lotuta daudela denbora mugagabea, eta onuradunak ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko betebeharra duela.

V. KAPITULUA

UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK EROSTeko ARAUBIDEA

11. artikulua. Udal-etxebizitza tasatuaren onuradunen etxebizitza-premiaren betekizuna.

UETen onuradun guztiek, hau da, bizikidetzaren unitateko kide guztiek, beste etxebizitzarik ez edukitzeko baldintza bete beharko dute, ez jabetzan, ez azalera osoan, ez biziarteko gozamen eskubide errealean, eta hori etxebizitza-premia definitzen duen autonomia erkidegoko araudian ezarritako salbuespenekin, edo salbu eta daukaten etxebizitzak ez baditu betetzen udal mugarteko Eraikuntzako Udal Ordenantzako gutxieneko etxebizitza programaren baldintzak.

12. artikulua. Bizilekuaren betekizuna.

Oro har, UET baten esleipendun izateko, bizikidetzaren unitateko kideren batek gutxienez baldintza hauek bete beharko ditu: azken 2 urteetan ohiko bizilekua Anoetan izatea eta erroldatuta egotea, edo azken 10 urteetan gutxienez 5 urtez Anoetan erroldatuta egotea. Ez da beharrezkoa izango eskaeraren egunean Anoetako Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta egotea.

Hala ere, baldintza horiek betetzen dituzten parte hartzaileen kopurua esleitu beharreko etxebizitzaren kopurua baino txikiagoa bada, Anoetan erroldatuta dauden eskatzaileak ere hartuko dira kontuan, erroldatuta dauden antzinatasuna edozein dela ere; eta hutsik jarraitzen badute, Tolosaldeko edozein udalerritan erroldatutako pertsonak ere izan daitezke esleipendun.

13. artikulua. Udal-etxebizitza tasatuak esleitzeko prozedura.

1. Udal Etxebizitza Tasatuak esleitzeko prozedura Alkatetzaren edo hark eskuordetutako organoaren ebazpenaren bidez hasiko da. Ebazpen horren bidez, dagokion deialdiaren oinarriak onartuko dira, eta bertan zehaztuko dira deialdiaren baldintzak, eskaerak egiteko epea adierazita.

Izapide horren berri emateko iragarkia jarriko da udalaren webgunean, iragarki taula digitalean eta, gutxienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkarietako batean.

Ezin izango da esleipen prozedura hasi sustapenaren behin behineko kalifikazioa lortu arte.

2. UETen sustapen bakoitzerako oinarrietan kupo jakin batzuk ezarri ahal izango dira, etxebizitza eskuratzeko premia edo zailtasun bereziak dituzten gizarte talde bateko pertsonen etxebizitza kopuru jakin bat bideratzen laguntzeko. Era berean, Udalak, modu arrazoituan, lehentasunezko esleipen irizpideak ezarri ahal izango ditu premia edo zailtasun bereziko talde horietan daudenen alde.

3. Salbuespen gisa, sustapen bakoitzeko zozketetatik etxebizitza kopuru jakin bat kanpo uztea erabaki ahal izango da, udalak birkokatze eskubideak gauzatzeko edo behar bezala egiaztatutako gizarte premiei erantzuteko.

4. Eskabideak aurkeztu ondoren, udalak aztertu egingo ditu, oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak zein diren zehazteko.

5. Eskabideetan akatsak daudela ikusiz gero, 15 eguneko epea emango da akatsak zuzentzeko, zer bete behar den edo eskabideari zer dokumentazio erantsi behar zaion adierazita. Epe hori igaro eta eskabidea bete ez bada, edo eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo, horren ondorioz, datuak faltsuak direla edo ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen ez direla ondorioztatzen bada, Udalak eskaera izapidetzeko onartzea ukatuko du.

6. Aurreko izapidea egiaztatu ondoren, prozeduran parte hartuko duten eskatzaileen zerrenda egingo da, eta jendaurrean jarriko da iragarki taulan eta udalaren webgunean.

Etxebizitzaren esleipenean parte hartzeko onartutakoen zerrenda jasoko da bertan, eta prozedura arautzen duten oinarriek ezar ditzaketen taldeen arabera sailkatuko dira, baita esleipena egingo den eguna eta ordua ere.

7. Fede emaile publikoaren aurrean esleituko dira etxebizitzak, sustapena arautzen duten oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten eskatzaileen artean, oinarrietan zehaztuko den prozeduraren bidez. Lehentasunezko prozedura zozketa izango da, eta eskaerak barematzeko beste prozedura batzuk ere erabil daitezke, eskatzaileei lehentasuna emanaz errenta erabilgarriaren arabera eta bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera, eta etxebizitza eskatzaile gisa duten antzintasuna irizpide osagarri gisa hartuko da kontuan. Nolanahi ere, publikotasunaren eta lehia askearen printzipioak bermatuko dira.

8. Eskaera kopurua etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, itxaron zerrenda bat finkatuko da, esleipenen bat bisatu edo ebatzi ondoren uko egin, baja eman edo baldintzak betetzen ez direnean erabiltzeko.

9. *Itxaron zerrenda amaitu ondoren edo eskaera kopurua etxebizitza kopurua baino txikiagoa denean, esleitu gabeko etxebizitzak esleitu ahal izango zaizkie baldintzak betetzen dituzten pertsonai, publikitatearen eta zuzeneko esleipenaren bidez, 12. artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta.*

14. artikulua. Lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea.

Esleitu diren etxebizitza tasatuak ezin izango dira errentan edo prekarioan laga, ezta kostu bidezko edo doako edozein tituluren bidez inter vivos edo mortis causa eskualdatu ere, Anoetako Udalak aldeztetik berariazko baimena ematen ez badu; Anoetako Udalak lehentasunez erosteko eskubidea izango du etxebizitza horien gainean, jarraian zehazten diren baldintzetan, epeetan eta araubide zehatzean. Lehentasunez eskuratzeko eskubide hori eskubide erreala izango da, eta Jabetza Erregistroan inskribatuko da.

Araubide horren iraupenak eta, ondorioz, hori betetzeko ezarritako bermeek iraupen mugagabea eta iraunkorra izango dute, eta jabetza eskualdatzeko dokumentu publikoei erantsiko zaizkie eta Jabetza Erregistroan inskribatuko dira.

UETen titularrek, haien araubidea edozein dela ere, Udalari eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jakinarazi beharko diete, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidearen titular subsidiarioa diren aldetik, besterentzeko erabakia, aurreikusitako prezioa eta ordaintzeko modua, aurreikusitako transmisioaren gainerako funtsezko baldintzak eta jakinarazpenetarako helbidea adierazita, lehentasunez erosteko eskubidea baliatu ahal izateko. Eskubide hori bi hilabeteko epean baliatu ahal izango da, jakinarazpena Udalaren eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erregistroan sartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Udalak bi hilabeteko epea izango du baimena eskatu duenari erantzuteko. Epe horretan, bi aukera izango ditu: etxebizitza erosi, etxebizitza itxaron zerrendako hurrengoari esleitu, edo, zerrendan hautagairik ez badago, baldintzak betetzen dituen erosle bat proposatu, publikotasunaren, lehiaren eta berdintasunaren printzipioak errespetatuko dituen prozedura egokiaren bidez. Eskubidea egikaritzea erabaki ondoren, eskualdatzea hiru hilabeteko epean egin behar da.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea igaro eta lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeari buruzko berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, proiektaturiko besterentzea libreki egin ahal izango da.

Artikulu honetan eskatutako jakinarazpena egin ez bada, edo jakinarazpenean legezko edukiren bat aipatu ez bada, edo eskualdaketa oraindik ordaindutako prezioa dagokion Administrazioari jakinarazitakoa baino txikiagoa bada edo baldintzak kostu gutxiagokoak badira, Administrazioak atzera eskuratzeko eskubidea baliatu ahal izango du bi hilabeteko epean, besterentzearen berri guztiz izan duen egunetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, etxebizitzaren erosleak, geroko eskualdatzeetan, egindako eskritura publikoaren edo kontratu pribatuaren kopia bat aurkeztu beharko du Anoetako Udalean, 30 eguneko epean, eskriturak edo kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratu horretan, oinarri hauetan horretarako ezarritako klausula guztiak jasoko dira, baita prezioa eta etxebizitza horren eskaintza ere, lehentasunez erosteko edo lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko ezarritako baldintzetan.

Udalak ezarritako prozedura eta baldintzak errespetatu ez badira, udal administrazioak eskuratzeko lehentasunezko eskubidea erabili ahal izango du bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik edo eskualdatze-eskritura aurkeztzen denetik zenbatzen hasita.

Etxebizitza horiek inter vivos eskuratzeko tituluak Jabetza Erregistroan inskribatzeko, aurreko paragrafoan ezarritako jakinarazpena egin izana justifikatu beharko da.

Etxebizitza lehentasunez erosteko edo lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko izapideak errespetatu gabe eskualdatuz gero, Anoetako Udalak saltzaileari diru-zehapen bat ezarriko dio, eskualdatzearen egunean etxebizitzaren prezioaren % 20koa, gehi oinarri hauetan ezarritakoaren arabera doitutako prezioaren eta erosle berriak benetan ordaindutakoaren arteko zenbatekoa, azken hori handiagoa izanez gero.

